

Gorputzaren ideologia

H

abanako abuztuko bero umelak ez du aukera larregirik uzten. Lo-kuluxka egitera gonbidatzen du. Ezer ez egitera. Kuban zergatik ez den posible kapitalismoaren abiadura bizia eta egin zaletasun neurotikoa, klimak berak erraz azaltzen ote duen. Kuban gogor lan egitearen aldeko hautu mendebaldarra ezin da ganoraz arrazoitu. Ez behintzat abuztuan.

Ba, hesteak ere izerditan genituela, abuztuko eguerdi hartan Iraultzaren Museora joan ginenean, XX. mendeko amets kolektibo baten barrunbeetatik bidaiatzera. Txikiak irabazteko duen aukera gogoratzera.

Goi klasekoek asmatu dituzte iraultzak, noble edo burges jatorrikoek. Bakunin, Marx, Trotsky, Rosa Luxemburg edo Che, begiratu horietako edozeini. Nekez aurkituko diezu herri xehearen begiei dariena. Hori bai, behekoen hauskortasuna bihotzeratzeko gaitasuna aurkituko diezu. Ez da hain zaila konprenitzen: iraultza irudikatzen kapital kulturala eta edukatiboa behar; dependentzia ekonomikoak zein psikologikoak eragotzi ohi duen autodeterminatzeko gaitasuna behar; belurrak trabatu ez duen harrotasuna behar.

Herri xeheak baina, erditu ditu ale batzuk beharizanaren sabeletik. Camilo Cienfuegos da horietakoa. Museoan, Camiloren irudi bizartsuak sortzen zidan sinpatia bizi-bizi nuela, mutil gazte bat jarri zitzaidan aldamean. Europarra, esango nuke. Gaztetasuna, edertasuna eta genetika alde zituen, agerikoa zen. Tirantedun nikiaren paparrean, izar gorria.

Arin mugitzen zen, bitrinetako argazki, fusil, zein iraultzaile izandakoen arropak atxikita zeramaten esplikazioa gainetik kendu guran bezala. Aurrea hartu zidan. Eta aurrean nuela konturatu nintzen, hurrengo bitrinan: pauso bat atzera egin eta bitrinaren kristalaren erreflexuak bueltatu zion irudiari so geratu zen, bere irudiari so.

Bitrinaz bitrina bere buruaren erreflexuari disimuluz begiratzen ziola



KARLOS CORBELLA

erreparatu nion, kaletik zoazela dendetako erakusleihoak baliatzen dituzunean bezala. Bitrinetako eduki politikoa bere gorputz ongi definituarekin katramilatu zuen, biak atentzio eske balitu bezala. Narrazio iraultzaileari bere gorputzarena gailendu nahi balitzaio bezala.

Gorputzari gaur egiten diogun gorazarearen begien aurrean nuen. Dietetika dendak, gimnasioak eta ebakuntza-gelak betetzen ari direla akordatu nintzen. Habanako Iraultzaren Museoak gogoratu zidan gorputz ideologikoen lekuan gorputza dela ideologi berri.

Gorputza da kausa berria, belaunaldi berri baten buruhauste eta eragin esparru pribilegiatua. Gorputza eraiki beharra dago, ondo planifikatu, bizi-estiloaren eta niaren adierazpen gorenetakoa baita. Norbere singularitasuna eta aberastasun espresiboa demostratzeko gunea.

Gorputza dagoeneko ez da emanda datorren zerbait. Bertan eragin beharra dago. Eta aditu usteko askok nahi dute bertan eskua sartu, ogia oratzen balebiltza: dietetika eta nutrizioa, anabolizatzaileak, dermoestetika, injenieritza genetikoa, farmakologia... Zahartzearen horrorea uxatzeko teknologia berriak. Aditu-sistemek kolonizatua dute gorputza, eta kolonizazio teknikoarekin batera, kolonizazio ekonomikoa heldu da: merkatuak aspaldi zorroztu zituen hortzak eta gu denok gorputza “zaintzera” animatu.

Gaur badira gure artean, ikasturtea gainditzearen truke, sudur luzeegiak edo bular txikiak zuzentzeko eskari goiztiarrak. Gorputzaren kontrako boronka legitimatua. Perfekzio nahi mendebaldarrak eragindako autobortxa fisiko onetsia.

Nartziso ederra ere errekkako urak bueltatzen zion irudiarekin autolilurata bizi zen. Bere buruarekin txundituri jausi eta ito zen arte. Irudi hilgarri batek narkotizatzen *-Narkis-sos-*, gorputza gorpu bihurtu zen arte. ■

« Gorputza da kausa berria, belaunaldi berri baten buruhauste eta eragin esparru pribilegiatua. Gorputza eraiki beharra dago, ondo planifikatu, bizi-estiloaren eta niaren adierazpen gorenetakoa baita »

